

Eskontzen estatistika

Emaitzen analisia

Lanketa:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia:

VI-2006

Argitalpena:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal Aeko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

2004KO EZKONTZEN ESTATISTIKA

2004. urtean, aurreko urtean baino 10.785, 107 ezkontza gehiago izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ezkontzen, jaiotzen eta heriotzen estatistiek biztanleriaren mugimendu naturala osatzen dute. 1861. urtean egin zen jaiotzen gaineko lehenengo estatistika; eta harrezkero aldi honetan izan diren aldaketa demografikoak eta horien bilakaera ezagutu ditzakegu. Biztanleriaren mugimendu naturalak, migrazio-mugimenduekin batera, biztanleriaren gorabeherak zehazten ditu.

2004. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan egoiliarren 10.785 ezkontza izan ziren. Kopuru hori aurreko urteetakoaren antzekoa da; hain zuzen, 2003. urtean baino 207 ezkontza gutxiago egon zen. EAEn mila biztanle bakoitzeko 4,8 ezkontza izan ziren, hau da, Europar Batasunaren antzeko kopurua izan zen baina Espainian baino ezkontza gutxiago (5,0).

1. TAULA EZKONTZEN ESTATISTIKAK

EUROPAR BATASUNeko EZKONTZAK	Ezkontzak (1.000 biz.)	Lehenengo ezkontzako batez besteko adina (urteak) (*)	
		Gizonak	Emakumeak
EUR25	4,8	30,0	27,7
Belgika	4,1	29,3	27,1
Txekiar Errepublika	5,0	28,4	25,6
Danimarka	7,0	32,3	30,1
Alemania	4,8	30,6	28,1
Estonia	4,5	28,1	25,5
Grezia	4,2	31,0	27,3
Espainia	5,0	30,2	28,3
Frantzia	4,3	30,4	28,2
Irlanda	5,1 *	:	:
Italia	4,3	30,4	27,4
Txipre	7,2	28,9	27,3
Letonia	4,5	26,8	24,8
Lituania	5,6	26,6	24,4
Luxemburg	4,4	30,2	27,9
Hungaria	4,3	28,6	25,8
Malta	6,0	29,0	26,5
Herbehereak	4,7	30,8	28,4
Austria	4,7	29,9	27,7
Polonia	5,0	27,0	24,7
Portugal	4,7	28,0	26,1
Eslovenia	3,3	30,1	27,5
Eslovakia	5,2	27,7	25,0
Finlandia	5,6	30,4	28,8
Suedia	4,8	32,9	30,5
Erresuma Batua	5,1 *	29,3	27,2
EAE	4,8	32,1	30,2

(*) 2004. urtea baino lehen


(:) Ez dago daturik

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT

2004. urtean 10.785 bikote ezkondu ziren eta horietako 10.045 Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan zen (1.381 Araban, 5.183 Bizkaian eta 3.481 Gipuzkoan); beste 740 bikoteak, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joan ziren bizitzera. Bikoteak ezkondu ziren tokien arabera, 9.942 ezkontza Erkidegoan bertan egin ziren eta 843 Erkidegotik kanpo.

Ezkondu zirenen jatorri geografikoari dagokionez, ezkontzen %70,7 Erkidegoko udalerri bereko bizilagunen artean egin ziren, eta %7,6 udalerri mugakideetako bizilagunen artean.

Ezkontzak, ezkonberrien egoitzen hurbiltasunaren arabera. (%)




2004ko ezkontzak ospatzeko modua aintzat hartuta, 6.268 ezkontza katolikoak izan ziren, 4.504 ezkontza soilik zibilak izan ziren eta 13 bestelako erlijioetakoak izan ziren. Urteak igaro ahala, ezkontza zibil gero eta gehiago izan da: 1990. urtean ezkontzen %23,3 mota horretakoak izan ziren eta 2004. urtean %41,8.


Lurraldez lurralde, ezkontza zibilen ehunekorik handiena Gipuzkoan eman zen (%46), gero Araban (%44,2) eta azkenik Bizkaian (%41,3).

2. TAULA ESTADISTICA DE LOS MATRIMONIOS 1990-2004

EZKONTZA ZIBILEN BILAKAERA (%)	ALAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
1990	21,3	24,1	23,3
1991	24,1	26,0	25,1
1992	24,3	24,0	25,7
1993	24,8	27,9	27,6
1994	26,7	27,6	26,0
1995	30,4	28,1	26,4
1996	31,9	29,1	27,4
1997	31,5	28,4	29,9
1998	35,9	30,1	32,4
1999	33,8	28,6	30,5
2000	30,3	29,0	31,3
2001	32,7	32,3	35,0
2002	35,6	34,9	37,4
2003	43,1	35,5	40,9
2004	44,2	41,3	46,0


Ezkontzen hileko mugimendua. Oinarria 100 = batez bestekoa


Ezkontzeko unea aukeratzekoan estazionalitate nabarmena ematen da: lau ezkontzatatik hiru maiatza eta urria bitartean egin dira, eta horien artean uztaila (1.656), iraila (1.529) eta urria (1.413) izan dira nagusienak. Udako hilabeteen artean azpimarratzekoa da abuztuaren ezkontza kopuruak behera egin zuela. Abenduan, urtarrilean eta otsailean ezkontza oso gutxi egin ziren baina ezkontza zibilen ehunekoa gehitu egin zen.

Ezkontzak hilabetei jarraiki, ezkontza-motaren arabera. (%)



Ama izateko adinak gora egin duen neurrian, ezkontzeko adinak ere hala egin du. 1986tik, senarren batez besteko adina 4,7 urte igo da, eta emazteena, 5,3.

2004. urtean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 32,1 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 30,2. Adin horiek Europar Batasunekoak gainditu zituzten, bien arteko aldea bi urte ingurukoa izanik; hain zuzen, Europar Batasunean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 30 urte zen eta emakumezkoena 27,7.

Ezkondu ziren ezkongabeen batez besteko adina



Adin-tarteei dagokienez, eta gizonen kasuan, 30-34 urteko taldeak 25-29 urtekoa (1997. urtean ugariena) gainditzen du oraindik. 35 urtetik gorako ezkonberrien ehunekoak gora egiten jarraitzen du eta, era berean, 25 urtetik beherakoak gutxitzen jarraitzen du.

Emakumeen kasuan, 30-34 urteko taldea pixkanaka gehitzen doa eta 20-24 urtekoa gutxitzen. Hala ere, hamarkada horretan 25-29 urteko taldea da nagusi oraindik baina 1995. urtetik aurrera pixkanaka gutxitzen joan da. Gizonen kasuan bezala, emakumezkoen artean ere 35 urtetik gorako emazte gehiago dago eta ia desagertu egin da 20 urte baino gutxiagorekin ezkontzen diren emakumeen taldea.


Ezkontzen banaketa, ezkontideen adinaren arabera. (%)


Ezkontideen adinaren bilakaera. (%)

GIZONAK




EMAKUMEAK



Ezkondu baino lehenagoko egoera zibila aintzat hartuta, ezkontzen %89,4 ezkongabeen artekoa izan zen. Ezkongabe zegoen emakumeen ehunekoa (%93,7) gizonenenaren (%93,3) antzekoa izan zen. Alargunak, ordea, ez dira ezkonberri guztien %1era heltzen. Alargunen artean berriz ezkondu ziren gizonak ia emakumeak baino bi aldiz gehiago izan ziren, nahiz eta kopuru horiek oso txikiak izan. Dibortziatuta zeuden ezkonberrien kopurua ere ez zen oso handia baina 1990. urtetik aurrera kopuru

hori gehitzen joan da. Dibortziatuen artean, 2004. urtean ezkondu ziren gizonen %30,7 eta emakumeen %28,8 dibortzio-epaia lortu eta urtebete igaro baino lehen ezkondu ziren. Azken hauetako gehienek ezkontza zibila aukeratu zuten.

EAEtik kanpo bizitzera joan ziren semar-emazteen kopurua, norakoaren arabera


Ezkondu ostean Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora bizitzera joan ziren 740 bikoteen bizilekuak hauexek izan ziren: Kantabria eta Madril, atzerriko herrialdeak, Gaztela eta Leon eta Nafarroa. EAEko hiru lurralde historikoetan eginiko ezkontzetan ezberdintasunak daude bizitzeko lekua aukeratzean: Arabako bikoteak batez ere Gaztela eta Leonera eta atzerriko herrialdeetara joan ziren; Bizkaikoak Kantabriara eta Madrilera, eta Gipuzkoakoak lehenbizi atzerriko herrialdeetara eta gero Madrilera.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



www.eustat.es